


LADYS SALGADO VENEGAS

# JAUREGIKO HORMAK



GIZA LIBURUTEGIAK  
2019

# GIZA LIBURUTEGIAK 2019

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

**"Giza liburutegiak"** Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

**Ladys Salgado Venegas eskertu nahi dugu Elkarrekin Kooperatiba Txiki elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.**

*Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner*

# Jauregiko hormak

**Ladys Salgado Venegas Nikaraguakoa da, 38 urte ditu eta orain dela 12 urte iritsi zen Euskal Herrira. “Jauregiko murrak” izeneko kontakizuna ekarri digu. Bere esperientziatik abiatuta, mugak gainditzeari buruzko kontakizun bat osatu du, izan ere, helmugara iristean muga asko topatu baitzituen.**

Nikaraguan abiatu zen emakume honen bidea. Ondotxo zekien moduan, herrialde horretan, emakumeek askatasun eta aukera gutxiago dituzte, gizonak baino; horregatik, ikasi egin zuen, etorkizun hobe bat lortzeko eta burujabe izateko. Hala, gure protagonistak industria-ingeniaritzako ikasketak egin zituen, eta karrera amaitu eta gutxira, lana topatu zuen, alor horretan bertan. Nolanahi ere, lanbide horretan ez zuen soldata handirik jasotzen.

Apurka-apurka, Espainiara joandako jendeari buruzko kontakizunak aditzen hasi zen, gero eta gehiago baitziren. Bidaia zaila zen, eta bazekien, baina 26 urte bete ostean, jaioterria uztea erabaki zuen, hiru amets bete nahian. Bat: etxe berri bat eraikitzea amarentzat, hura adobe eta lurrezko eraikin batean bizi baitzen. Bi: industria-ingeniaritzako titulua homologatzea. Hiru: ikasketak zituen alor horretan lan egitea.

Mailegu bat eskatu zuen, bidaia egin ahal izateko, eta lagun batekin batera iritsi zen Madrilera. Laguna aduanan geratu zuten; Ladys, ordea, Beasainera heldu zen, adiskide batzuen laguntzaz.

Han aurkitu zuen lehen murrak: lana, egon, bazegoen, baina soilik etxe barneko langile gisa, etxeko lanak egiten. Lehen hilabeteak oso gogorrak egin zitzaizkion, iruditzen baitzitzaion askatasuna galdu zuela. Ordura arte bulegotan egin zuen lan eta, etxe

barruan egonda, giltzapetuta sentitzen zen. Ez zeukan laguntza-sarerik eta bertako jendea oso itxia zela iruditzen zitzaion. Madrilera joan zen, ea zortea hobea zeukan, baina han lanpostu berberak topatu zituen, eta soldata okerragoarekin, gainera. Beraz, handik sei hilabetera, Euskal Herrira itzuli zen berriro.

Itzuleran, gauzak zertxobait hobetu zitzaizkion, dirua bildu zuen, eta bidaia-mailegua ordaindu. Nolanahi ere, beste murru bat topatu zuen, izan ere, ez zuenez inork erroldatzea lortzen, ez zuen herrialdean bizitzeko baimen-agiririk. Beraz, berriro ere dirua bildu, etxe bat alokatu, eta erroldatzea lortu zuen.

Apurka-apurka jendea ezagutu zuen eta bere ametsetako bat betetzeko bidean jarri zen: ingeniari-titulua homologatzeko bidean. Baina, horretan ari zela, beste murru batekin egin zuen topo, izan ere, 4 urte itxaron behar zuen ikasketak homologatu ahal izateko. Hala, Helduen Hezkuntzako Eskolan gomendatu zioten ikasketak berriro egiteko. Horrek asko zapuztu zuen eta albo batera utzi zuen asmoa.

Lehen baimena lortu, Amaran taberna bat ireki eta berriro heldu zion bere amets zaharrari. Emakumeen Etxean homologazio-izapideekin lagundu zioten eta, hala, iritsi eta 8 urtera, lehen ametsa bete zuen: ingeniari-titulua homologatu zuen.

Bazirudien dena ondo zihoala eta, orduan, haurdun geratu zen Ladys. Berak bakarrik hazi behar zuen alaba, beraz, etxeko lanetan jarraitu zuen lanean, eta izugarri mugatu zitzaion bizitza: lanetik parkera eta parketik lanera.

Bere ametsetako bizitza ez zen halakoa, beraz, Nikaraguara itzuli zen, alabarekin. Han, ordea, 35 urte izanda, nekez kontratatuko zuten. Beraz, alaba bertan utzi eta Donostiara itzuli zen, hutsetik hasteko asmoz. Hemen berriro ere, murru batekin egiten du topo: herrialdea uzteagatik, kostata lortu zituen paperak galdu ditu. Krisi-garaia zenez, askoz zailagoa suertatu zitzaion lan bat topatzea, eta are gehiago baldintza

duinetan. Tolosara joan eta bertan hasi zen lanean, etxe barneko langile gisa, askatasun murrizarekin. Han igaro zituen, iritsi zenez geroztik, 10 hilabete okerrenak; depresioak hartu zuen.

Nolanahi ere, borroka da gauzak lortzeko bidea, eta, hala, adiskide batzuen laguntzaz, Donostiako taberna batean hasi zen lanean. Gainera, bere egoera legezatu zuen, eta bi urteren buruan, berarekin zeukan berriro alaba. Ez hori bakarrik, beste amets bat bete zuen: etxe bat eraiki zuen amarentzat.

Gaur egun, amets bakarra geratzen zaio bete gabe, hain justu ere, bere ikasketei lotutako arloan lan egitea. Baina Ladysek dioen moduan, "jauregiko murrak zailagoak dira ez baldin badaukazu familiarik, ez baimenik, ez laguntzarik. Baina beste herrialde batera emigratzen baduzu, ausart bihurtzen zara, izan ere, indar psikologikorik gabe, ez dugu murrak eta oztopoak gainditzea lortuko".

# GIZA LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS HUMANAS 2019



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Kultur Aniztasuna  
Diversidad Cultural

